


etxepare saria
haurrentzako albumak sortzeko



oinarriak

bat

Sari honetara hurrei zuzenduriko lan ilustratuak aurkeztu ahal izanen dira. Proposamenak albumaren ezaugarriak izanen ditu; hau da, osagarriak diren irudi eta testu laburren bitartez, hari narratiboa duen istorio bat kontatuko du.

bi

Lanak euskaraz idatziak, jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izanen dira. Ez da onartuko beste inondik moldatutako lanik, ezta aurretik saririk jaso duenik ere.

hiru

Lehiaketan honela parte hartu daiteke: bakarka edo idazle eta ilustratzaileek osatutako taldean.

lau

Formatua librea da, baina lanak ez dira 20 cm x 21cm baino txikiagoak izanen, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izanen dituzte. Testuek ez dituzte 4.000 karaktere baino gehiago edukiko (zuriuneak barne).

bost

Sari hau azken bi deialdietako batean jaso duten idazleen edo ilustratzaileen lanak alde batera utziko dira, nahiz eta arestian aipatutako baldintzak bete.

sei

Lehiaketan parte hartzen duten egileek obra osoaren 2 ale maketatuta aurkeztu beharko dituzte: bata originala izanen da (paperean edo dena delako euskarrian) eta bestea horren kopia izango da (pdf formatuan, lan osoa fitxategi bakarrean). Kopia CD Rom edo Pendrive batean entregatuko da (aholkatzen da fitxategiek ez izatea 10 mega baino gehiago). Horretaz gain, albumaren testua aurkeztu beharko dute word formatuan (CD Romean edo Pendrivean sartu beharko da).

zazpi

Lanak izengoitiaz izenpeturik egongo dira. Lanarekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztuko da, kanpoko aldean lanaren titulua eta egilearen goitizena izango dituen eta barruan egilea edo egileen datuak: izen-abizenak, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, NANaren edota pasaportearen fotokopia eta egilearen aipamen biografikoa.

zortzi

Lanak helbide honetara bidaliko dira: ETXEPARE SARIA, Leitzako Udala-Euskara Zerbitzua, Elbarren 1, 31880 Leitza (Nafarroa).

bederatzi

Originalak aurkezteko epea 2016ko maiatzaren 20an itxiko da. Epaimahaiak erabakia hartzeko azken eguna 2016ko ekainaren 30a izanen da.

hamar

Epaimahaia haur literaturan eta ilustrazioan adituak diren pertsonak osatuko dute, eta udal eta mankomunitate antolatzaileek izendatuko dute. Udal eta mankomunitate antolatzaileetako teknikari batek idazkari lanak egingen ditu (hitza izanen du, baina ez botorik). Pamielak izendatutako pertsonak egon daitezke epaimahaiak egiten dituen bilkuretan (hitza izanen dute, baina ez botorik). Ez da saririk emanen epaimahaiaren iritzi gutxienezko kalitateko lanik ez badago. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.

hamaika

Sari bakarra emango da, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurrerapen moduan. Zergen atxikipena indarrean dagoen legediari jarraiki egingen da.

hamabi


Saritutako lana Pamiela argitaletxeak argitaratuko du euskaraz, eta argitalpenean Etxepare sariaren aipamena egingen da.

hamahiru

Saria eman eta hilabeteko epean originalak itzuliko zaizkio eskatzen dituenari. Epe hori igarota, eskatzen ez diren lanak suntsitu egingo dira.

hamalau

Oinarri hauetan zehaztu gabeko zalantzaren bat agertzen bada, epaimahaiak argituko du eta hark egiten ez badu udal eta mankomunitate antolatzaileek erabakiko dute. Sari honetan parte hartzeak oinarri hauek ezagutzea eta onartzea dakar.



etxepare saria

haurrentzako albumak sortzeko

a

antolatzaileak:

Agoizko Udala; Antsoaingo Udala, Aurrabiako Udala; Barañaingo Udala; Baztango Udala; Berribeñito Udala; Berriozarko Udala; Bortzirietako Euskara Mankomunitatea; Burlatako Udala; Esteribarko Udala; Garesko Udala; Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea; Estella-Lizarrako Udala; Malerreka Mankomunitatea; Sakanako Mankomunitatea; Tafallako Udala; Uharteko Udala; Zaraitzu eta Erronkariko Batzorde Nagusiak eta Zizur Nagusiko Udalaren Kultur Patronatua.

laguntzailea:

